

LEHEN HEZKUNTZA eta HAUR HEZKUNTZA

GRADU BIKOITZA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea



I. MODULUA IRAKASLE ZEREGINA

2025/26 ikasturtea



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

HEFA II eraikina: Oñati plaza 3, Donostia

Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Moduluko lanaren bitartez garatu nahi diren konpetentziak	5
3. Lanaren helburu orokorra eta ikerketa-galderak	7
4. Eginkizunak, urratsez urrats	8
1. urratsa. Taldeak osatu	8
2. urratsa. Irakasle funtzioaren inguruko sarrera teorikoa osatu	8
3. urratsa. Elkarrizketak prestatu	10
4. urratsa. Bildutako informazioa ustiati	10
5. urratsa. Emaidzen eta ondorioen atalak garatu	11
6. urratsa. Txosten idatzia	12
7. urratsa. Ahozko aurkezpena	12
5. Lanaren gidoia	14
6. Lanaren ezaugarri formalak eta zenbait ohar	15
7. Kronograma	16
8. Ebaluazioa	17
Eskola-saioetara bertaratzen diren ikasleak	17
Eskola-saiotara bertaratzen ez diren dien ikasleak	18
9. Eranskinak	19
1. eranskina. Gogoetarako galderak (taldeak osatzeko)	19
2. eranskina. Ikasleen talde-fitxak (koordinatzaileari emateko)	20
3. eranskina. Atal teorikoaosatzen laguntzeko jarraibideak	21
4. eranskina. Idatzizko lana ebaluatzen egiaztatze-zerrenda	23
5. eranskina. Ahozko aurkezpenak ebaluatzen irizpideak	24
6. eranskina. Taldearen dinamika ebaluatzen txantiloia	25
7. eranskina. Taldekideen koebaluazioa (tutoreari bidaltzeko)	26

Moduluko irakasleak:

Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila: Leire Ugalde Lujanbio

Hezkuntzaren eta Garapenaren Psikologia Saila: Amaiur Olarza Goikoetxea

Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila: Maialen Oiartzun Irastorza

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila: Garbiñe Bereziartua Etxeberria

Soziologia eta Gizarte Langintza Saila: Mikel Olazaran Rodriguez (moduluaren koordinatzailea, mikel.olazaran@ehu.eus)

1. Sarrera

Jarraian irakurgai duzun dokumentu honen bidez, Haur eta Lehen Hezkuntza Gradu bikoitzeko 1. mailako lehen lauhilekoan burutu behar den moduluko lana aurkezten da. Lan hau Graduan burutuko diren 5 modulu lanen artean lehena da eta *Irakasle Funtzioa* du izena. Lehen lauhilekoan dauden irakasgai guztien ekarpenekin osatuko da zeregina:

Komunikazio Gaitasunaren Garapena HH/LH			
Hezkuntzaren Soziologia / Sociology of Education	Hizkuntzaren Teoria eta Historia	Irakasle Funtzioa	Garapenaren Psikologia eskola adinean

Moduluko lana **diziplinarteko lan bat** da (eremu desberdinetako jakintzen arteko loturak egiteko gaitasuna lantzea du helburu). Bere helburu nagusia askotariko hezkuntza errealitateen inguruko analisiak egiteko gaitasuna trebatzea da, errealitate hori osatzen duten praktika edo egitasmo pedagogiko zehatzak behatuz.

Lan honen helburua egungo testuinguru sozialean irakasleek aurre egin behar dieten **erronkak** eta bete behar dituzten **funtzioak** ezagutzea litzateke. Horretarako **ikerketa** bat burutzea izango da zeregina, zuek aukeratutako bi irakasleri egindako **elkarrizketak** abiapuntu hartuta.

Ikasleok taldeka egingo duzue lan modulu honetan eta irakasle-tutoreen laguntzarekin lan akademiko bat osatu beharko duzue. Lan honek ohiko **lan akademiko** batek bere baitan bildu behar dituen elementuak jasoko ditu: gaiaren inguruko testuinguru teorikoa, ikerketa egiteko jarraitutako metodologia, emaitzak eta horien interpretazioak, ondorioak eta, azkenik, erreferentzia bibliografikoak. Lan honetan garrantzitsua da bai lanaren edukia, bai forma eta bai egiten diren ekarpenak egokiak izatea.

Horrekin batera, **taldean** burutuko den lan bat izango denez, garrantzitsua da lan hori talde dinamika egokian burutzea.

2. Moduluko lanaren bitartez garatu nahi diren konpetentziak

Lan hau talde dinamikan oinarrituko den lan prozesu jarraitu baten gisan ulertu behar dugu.

Prozesua den neurrian, irakasle lanbideari dagokionean, Graduako lehen mailako konpetentziak garatuko dira, bereziki hauek:

1. Dibertsitate indibiduala, soziala eta kulturala aitortu eta errespetatzea. Ikaskuntza-espazioak dibertsitate-testuinguruetan diseinatu, arautu eta kudeatzea, betiere kontuan izanik ikasleen hezkuntza-premia bereziak, genero-berdintasuna, ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua¹.
2. Haur eta Lehen Hezkuntzako eskolen antolamendua eta horren funtzionamenduak eskatzen dituen ekintzen dibertsitatea ezagutzea. Bizitzan zehar irakaskuntza-lanak hobetzen eta zientzia, pedagogia eta gizarte arloan gertatzen diren aldaketetara egokitzen joan behar duela onartzea².

Graduaren lehenengo moduluan irakasle lanbideari begira egindako oinarritzko prestakuntza egiten da, pedagogia, psikologia, soziologia eta komunikazio diziplinetatik ekarpenak eginez.

Bereziki, irakasle lanbidearen eta eskolaren oinarritzko funtzioei begiratuko zaie, haurren garapen psikologikoa eta ikastetxeen ingurune soziala kontuan hartuz³.

Proiektu honen bidez landu nahi diren konpetentzia zehatzak hauexek dira:

1. 0-6 eta 6-12 aldiei dagozkien hezkuntza eta ikaskuntza prozesuak ulertzea familia, eskola eta gizarte testuinguruetan⁴.

¹ HH-G003, LH-G004

² HH-G009, LH-G006

³ Titulu ofiziala egiaztatzeko eskaeraren memoria, Hefa, 2022, HH 32 or, LH 29 or

⁴ HH-M01CM01, LH-M01CM01

2. Ulertzea, batetik, gaur egungo gizartean hezkuntzaren eginkizuna, aukerak eta mugak zein diren eta, bestetik, Haur nahiz Lehen Hezkuntzako ikastetxeei zein horietan lan egiten duten profesionalei eragiten dieten funtsezko gaitasunak zeintzuk diren⁵.

3. Haur eta Lehen Hezkuntzako erakundeetan informazioa jasotzeko elkarrizketagidoiak diseinatu, elkarrizketak burutu eta datuak analizatzea, informazio emaileen ezaugarriak eta egoerak aurreikusita, elkarrizketatuarekiko harremana zainduz⁶.

4. Ikaskuntza autonomo eta kooperatiboaren arauak bereganatzea, ikaskideekiko erantzukizunez eta errespetuz jokatzuz⁷.

5. Hezkuntza jardueran esanguratsuak diren egoerak eta horiei buruzko hausnarketak aurkeztea, bai ahoz, bai txosten idatzien bidez, testu akademikoen ezaugarri eta egituretara moldatuz eta informazio erabileraren etika arauak aintzat hartuz⁸.

Burutuko dugun lan honen bidez lauhilekoa osatzen duten irakasgaiak modu egokian barneratu eta, horietan oinarrituta, lan bat egiteko gaitasuna garatu nahi da.

Unibertsitatean, ikerketak bere pisua duenez, lehen unetik beretik, ikasleak gai edota jakin-min batetik abiatu eta horren inguruan ikertzen hasteko lehen urratsa dela esan genezake.

⁵ HH-G012, LH-G012

⁶ HH-M01CM06, LH-M01CM02

⁷ HH-G011, LH-G010

⁸ HH-G015, LH-G013

3. Lanaren helburu orokorra eta ikerketa-galderak

Modulu honetako diziplinarteko lanean ikerketa lan bat egin behar duzuela aurreratu dizuegu. Eta ikerketa lan orok ezinbestekoa du zein helburu lortzera bideratuta dagoen argi edukitzea. Behin helburu orokorra zein den erabakita, helburu horretara iristeko ikerketa-galdera zehatzagoak formulatzen dira. Ikerketa-galdera horien erantzunak aurkitzea izango da lanaren bidez egin beharrekoa.

Kasu honetan ikerketa honen helburu orokorra eta ikerketa-galdera zehatzagoak hauek izango dira:

Helburua

Egungo testuinguru sozialean irakasleek zein funtzio betetzen duten aztertzea, egunerokotasunean topatzen dituzten erronkak eta horiei aurre egiteko bideak ezagutuz.

Ikerketa-galderak

1. Zein ezaugarri dauzka ikastetxeak, ikuspuntu pedagogikotik begiratuta?
(Ikastetxe horretako hezkuntza ikuspegiak zer logikari jarraitzen dion; alegia, nola ulertzen duten bai haurra eta bai hezkuntza, zein helburu dauzkaten, zein proiektu dauzkaten).
2. Zein da irakaslearen funtzioa?
3. Zein erronka daukate irakasleek?
4. Zer egiten dute erronka horiei aurre egiteko?

4. Eginkizunak, urratsez urrats

1. urratsa. Taldeak osatu

Lehen egitekoa taldeak osatzea izango da. Taldeak berebiziko garrantzia du, taldearen nolakotasunak gure lan prozesu osoan eragiten duelako. Garrantzitsua da, beraz, taldeak osatzeko unean hainbat irizpide aintzat hartzea. Horretarako, gogoetarako galdera batzuk proposatzen dira (1 eranskina) eta **taldeak izan behar dituen ezaugarriak** zehazten dira:

- Taldekideen kopurua lau lagunekoa izango da.
- Ikasleok osatuko dituzue taldeak. Prozesua ez da bukatutzat emango ikasle guztiak talderen batean kokatuta egon arte. Ikasleren bat talderik gabe geldituko balitz, orduan irakasleok hartuko genuke taldeak berrantolatzeko ardura.
- Behin taldeak osatuta, fitxak bete eta koordinatzaileari entregatu behar zaizkio (2. eranskina); bertan, taldekide guztien izenak adieraziko dira, beren argazkiekin. Fitxak eGelara igo beharko dira irailaren 15etik 19ra.
- Taldeak heterogeneoak eta mistoak izatea gomendatzen da.

Behin hori egin ondoren, talde bakoitzari irakasle-tutore bat esleituko zaio. Eta aipatu irakasle-tutorearen laguntza eta gidaritza izango du ikasle taldeak. Garrantzitsua da irakasle-tutorearekin egin beharreko bilerak prestatzea. Taldeek, dokumentu honetan zehaztuta dauden epeetan, tutoreak gainbegiratzeko zirriborroak aurkeztuko dituzte.

Data: irailak 15-19

2. urratsa. Irakasle funtzioaren inguruko sarrera teorikoa osatu

Lanaren prozesuari ekin aurretik, aztertuko den gaiari buruz orain arte eraiki den ezagutzaren berri izan behar dugu. Gaiaren inguruko informazio egokia aurkitu behar dugu, gaian adituak direnek egindako ekarpenak, besteek gai honetaz idatzi dutena eta gaia ondo kokatzen lagunduko diguten definizioak (*Gai hori ikertu duten adituek zer aurkikuntza egin dituzte?; Gai hori aztertu duten adituek zer esperientzia jaso dituzte? Gai horretan aditu direnek nola definitzen dituzte gaiarekin lotutako kontzeptuak?*).

Horretarako, lehenik eta behin, beharrezkoa da taldekide guztiek zenbait lan irakurtzea eta atal hau osatzeko lan horiek oinarritzat hartzea. Hona hemen proposatzen diren artikuluzientifiko eta liburuetakoko kapitulu batzuk:

- Azpiaz, Lorea (2023). *La función docente enmarcada en las perspectivas del desarrollo infantil* [Argitaratu gabeko materiala]. UPV/EHU.
- Eusko Jaurlaritza. (2021). *Irakasle profila*.
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/hezkuntza_ikuskaritza_dok_batx/eu_def/adjuntos/0002021003e_Pub_EJ_irakasleen_profila_e.pdf [11-26 orrialdeak].
- Carr, David (2005). *El sentido de la educación. Una introducción a la filosofía y a la teoría de la educación y de la enseñanza*. Barcelona: GRAO. Lehenengo kapitulua, "Educación, escolarización y personas", 17-35 orrialdeak
- Buchanan, Rebecca (2015). Teacher identity and agency in an era of accountability, *Teachers and Teaching*, 21(6), 700-719

Proposatzen diren lan horiez gain, beharrezkoa da literatura gehiago aurkitu eta erabiltzea.

Behin lan horiek irakurrita, lanean zehar helduko diozuen gaiari buruzko sarrera teoriko bat osatu behar duzue, batzuek eta besteek esandakoekin diskurtso bat eraikiz. Atal teoriko honen ardatz izango den gaia ikerketaren ikerketa-galderetatik eratorria izango da. Alegia, ondoren, lanaren ondorioak idazteko eztabaida bat sortu beharko duzue atal teoriko honetan esandakoen eta zuen ikerketaren emaitzen artean. Horretarako, beharrezkoa da atal honetan biltzea ikerketa-galderekin jorratzen diren gaiei buruzko informazioa.

Egin behar duguna bezalako lan akademikoetan oso garrantzitsua da erreferentzia lan egokiak (lan akademikoak, ez dibulгатzaileak) erabiltzea eta lehen mailako iturriak erabiltzea (alegia, jatorrizko lanei erreferentzia egitea, ez beste norbaitek aipatutako lanei). Informazio fidagarria aurkitzeko bilatzaile egokiak erabili behar dira (Inguma, Dialnet, Google akademikoa, Scopus, Web of Science...) eta iturriak behar bezala aipatu (APA 7 arauak jarraituz).

Atal hau osatzeko laguntza "Komunikazio Gaitasunaren Garapena" irakasgaiari jasoko duzue.

Data: urriak 20-24

3. urratsa. Elkarrizketak prestatu

Lanaren muina irakasleei egindako elkarrizketetatik bildutako informazioa izango da. Horretarako, bi elkarrizketa egingo dituzue: bat Haur Hezkuntzako irakasle bati eta bestea Lehen Hezkuntzako irakasle bati. Elkarrizketatutako irakasleek ikastetxe desberdinetakoak izan behar dute.

Elkarrizketak egitera joan aurretik, egin beharreko galderen gidoia prestatu behar duzue (galdera egokiak egiteko lagungarri izango dira proposatutako irakurgaiak). Gidoi horretan zuen ikerketako bizkar-hezur izango diren galderei (3. atalean zehaztuta daude) erantzuna aurkitzeko moduko galderak egin behar dituzue. Elkarrizketetarako gidoiak prestatutakoan zuen tutoreari bidali behar dizkiozue eGela bidez, haren onespena jaso ondoren elkarrizketak egitera joateko.

Bien bitartean aztertu behar duzuen gaiari buruzko informazioa edo esperientzia eduki dezaketen profesionalen kontaktuak lortu behar dituzue (elkarrizketatuko dituzuen horienak).

Behin tutoreak elkarrizketetako gidoiaren onespena emandakoan eta zuek elkarrizketatu behar dituzuen pertsonekin kontaktua egindakoan, prest zaudete elkarrizketak egiteko. Ezinbestekoa izango da taldeko kide bakoitzak gutxienez elkarrizketa batean parte hartzea. Elkarrizketak unibertsitateko orduetatik kanpo egingo dira eta grabagailu batekin grabatuko dira. Ondoren elkarrizketak transkribatu egin behar dira.

Atal hau osatzeko laguntza “Hezkuntzaren Soziologia” irakasgaian jasoko duzue.

**Datak: urriak 20-24 (gidoiak),
urriak 27-azaroak 7 (elkarrizketak eta transkribapenak)**

4. urratsa. Bildutako informazioa ustiatu

Behin elkarrizketak eginda, emaitzen eta ondorioen atalak idatzi behar dituzue. Baina, horretan hasterako, ezinbestekoa izango duzue bildutako informazioa ondo antolatzea.

Emaitzen atalean aurkeztu behar duzuen informazioa ikerketa-galderen arabera antolatuta aurkeztu behar duzue. Horretarako, elkarriketetatik bildutako informazioa ikerketa-galdera horien arabera prestatu behar duzue.

Lan honetako ikerketa-galderak eskura eduki. Zein da lehenengo ikerketa-galdera? Honakoa: *Zein ezaugarri dauzka ikastetxeak ikuspuntu pedagogikotik begiratuta?* Galdera horri erantzuteko zer informazio jaso dugu lehenengo elkarriketan? Hartu informazio hori eta gorde. Galdera horri erantzuteko zer informazio jaso dugu bigarrenengo elkarriketan? Hartu informazio hori eta gorde. Gauza berbera egin ikerketa-galdera guztiekin. Modu horretara, ikerketa-galdera bakoitzari buruz jaso dugun informazio guztia elkarren ondoan izango dugu eta emaitzen atala idazteko lagungarri izango zaigu.

Azaroaren 2. astean eskola-saioak eten egingo dira eginkizun hau egiteko. Ikasleak eskolara etorriko zarete eta moduluko irakasle guztien laguntza izango duzue diziplinarteko lan hau egiteko.

Data: azaroak 10-14

5. urratsa. Emaitzen eta ondorioen atalak garatu

Elkarriketetan jasotako informazioa antolatutakoan horiei forma ematea dagokizue. Emaitzen atalean egingo duzue hori. Ikerketa-galdera bakoitzari erantzutea da egin behar duzuen. Batetik eta bestetik jasotakoak hartu eta diskurtso koherente bat eraiki.

Emaitzen atal honetan ez du zuen ahotsik agertu behar, bildutako informazioa ahalik eta modurik objektiboenean aurkeztu behar duzue.

Behin emaitzen atala eginda, ondorioen atala idatzi behar duzue, **teoriaren** eta zuek ateratako **emaitzen** arteko ezaabaida eginez. Hau da: alde batetik hartu zuen ikerketako emaitzak; beste aldetik hartu irakasgai desberdinetatik helarazi zaizkizuen **adituen ekarpenak** (eta zuen kabuz aurkitutakoak); eta horien arteko ezaabaida bat sortu. *Zer diote adituek? Zuen ikerketa bat al dator adituek diotenarekin?* Hori egitearekin batera gaiari buruzko zuen **diskurtso kritikoa** garatu behar duzue, gaiari buruz irakurri duzuen **literaturaren** laguntzaz eta zuen **iritzi propioak** emanez. Lauhilekoan zehar ikasgaietan jasotako edukiak ere baliatu ditzakezue zuen

argudioak indartzeko. Horrez gain, sortu zaizkizuen galdera berriak proposatu **aurrera begirako** gisa.

Azaroaren bigarren

asteen eskola-saioak eten egingo dira eginkizun hau egiteko. Ikasleak eskolara etorriko zarete eta moduluko irakasle guztien laguntza izango duzue diziplinarteko lan hau egiteko.

Data: azaroak 10-14

6. urratsa. Txosten idatzia

Lan osoari forma emateko garaia da. Gida honetan “Lanaren gidoia” izeneko atalean proposatzen den hezurdura osatu behar duzue. Dagoeneko garatu dituzuen atalak txertatuz eta osatzeko falta direnak osatuz.

Amaitutakoan eGelara igoko duzue lanaren azken bertsioa.

Data: azaroak 17-21

7. urratsa. Ahozko aurkezpena

Zer egin:

Lanaren aurkezpenak mahai-inguru formatuan egingo dira, irakasleek galderak planteatuz eta zuek galdera horiei buruzko azalpenak emanaz. Horrek esan nahi du taldeko kide guztiok ezagutu eta ulertu beharko duzuela lana, bai prozesua eta bai edukia.

Lanaren ahozko aurkezpenak edo mahai-inguruak eskola-orduetan egingo dira eta, kalifikaziorako balioko dutenez, ezinbestekoa da bertaratzea.

Nola egin:

Talde bakoitzeko kideak sakabanatu egingo dira eta hainbat taldetako partaideekin osatutako talde berriak eratuko dira (aurkezpenak egiteko taldeak). Gisa honetara:

- 4-5 lagunekoko talde bakoitzean zehaztu *a ikaslea*, *b ikaslea*, *c ikaslea*, *d ikaslea* eta *e ikaslea*.

- Aurkezpenak egiteko talde berriak eratu: moduluko talde guztietako *a* ikasleak, *b* ikasleak, *c* ikasleak, *d* ikasleak eta *e* ikasleak elkartu.

Moduluko diziplinarteko laneko taldeak:

1 taldea	2 taldea	3 taldea
<i>a</i> ikaslea	<i>a</i> ikaslea	<i>a</i> ikaslea
<i>b</i> ikaslea	<i>b</i> ikaslea	<i>b</i> ikaslea
<i>c</i> ikaslea	<i>c</i> ikaslea	<i>c</i> ikaslea
<i>d</i> ikaslea	<i>d</i> ikaslea	<i>d</i> ikaslea
<i>e</i> ikaslea	<i>e</i> ikaslea	<i>e</i> ikaslea

Aurkezpenak egiteko taldeak:

X taldea	Y taldea	Z taldea
<i>1-a</i> ikaslea	<i>1-b</i> ikaslea	<i>1-c</i> ikaslea
<i>2-a</i> ikaslea	<i>2-b</i> ikaslea	<i>2-c</i> ikaslea
<i>3-a</i> ikaslea	<i>3-b</i> ikaslea	<i>3-c</i> ikaslea
<i>4-a</i> ikaslea	<i>4-b</i> ikaslea	<i>4-c</i> ikaslea
<i>5-a</i> ikaslea	<i>5-b</i> ikaslea	<i>5-c</i> ikaslea

Data: azaroak 24 – 28

5. Lanaren gidoia

Azala

Aurkibide zenbakitua (modu automatikoan)

Laburpena eta gako-hitzak (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez)

Sarrera teorikoa (2-4 orrialde)

Metodologia (1-2 orrialde)

- Lanaren helburua eta ikerketa-galderak (gida honetan bertan aurkituko dituzue)
- Datuak biltzeko teknikak (elkarriketen transkribapenak tutoreei entregatuko zaizkie baina lanaren azken bertsioan ez dira sartuko)
- Parte-hartzaileak (beharrezko den kasuetan testuingurua ere deskribatzea komeni da)
- Datuak bildu eta aztertzekeo prozesua

Emaitzak (6-8 orrialde)

- Lehenengo elkarriketatua
 - . Ikastetxearen ezaugarriak ikuspuntu pedagogikotik begiratuta
 - . Irakasleen funtzioa
 - . Irakasleen erronkak
 - . Erronkei aurre egiteko estrategiak
- Bigarren elkarriketatua
 - . Ikastetxearen ezaugarriak ikuspuntu pedagogikotik begiratuta
 - . Irakasleen funtzioa
 - . Irakasleen erronkak
 - . Erronkei aurre egiteko estrategiak

Eztabaida, ondorioak eta aurrera begirakoak (3-4 orrialde).

Erreferentzia bibliografikoak (APA arauen 7. edizioa jarraituta)

Eranskinak Lana indartzeko edota osatzeko egokia izan daitekeena (adibidez, elkarriketetako gidoiak).

6. Lanaren ezaugarri formalak eta zenbait ohar

- Luzera: gehienez 18 orrialdeko lana izan behar du (azala, aurkibidea, erreferentziak eta eranskinak kontatu gabe)
- Tipografia eta tamaina: Times New Roman 12, Calibri 12 edo Arial 11.
- Lerroarte: 1,5
- Orri guztiak zenbakituak eta aurkibidearekin bat datozenak.
- Marjinak 2,5 zentimetrokoak eta sangriak 5 karakterekoak.

Oharrak:

Lanak edozein lan akademikori dagokion kode deontologikoa bete behar du. Erabat originala izan behar du; plagioa ez da onartuko eta kasuren batean plagioa detektatuko balitz lan hori ez litzateke onartuko.

Taldeko lanak isla zuzena izan behar du lanean; osotasun bat izan behar du, ez norbanakoek egindako zatien batura soil bat.

Lanean zehar agertzen diren pertsonen konfidentzialtasuna errespetatu egin behar da, euren izenak edota ikastetxearenak aipatzekotan (ez da beharrezkoa), dagozkien baimenak eskatuz edota anonimizatuz.

Datuen babesari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, UPV/EHUko webgune hau kontsulta daiteke: www.ehu.eus/babestu

7. Kronograma

Modulu honetako diziplinarteko lana egiteko gogoan hartu beharreko datak honako hauek dira:

Irailak 8	Ikasturtearen hasiera
Irailak 8-12	Diziplinarteko lanaren (DILAN) aurkezpena (moduluko koordinatzaileak).
Irailak 15-19	Taldeak osatu eta taldeen fitxak entregatu koordinatzaileari. Irakasle-tutoreak izendatu.
Urriak 20-24	Lanaren sarrera teorikoa osatu eta elkarriketen gidoia sortu. Egindakoak eGelara igo (LEHENENGO ENTREGAGAIA)
Urriak 27 – Azaroak 7	Elkarriketak egin eta transkribatu. Transkripzioak eGelara igo. Audioak tutoreari helarazi.
Azaroak 10-14	ESKOLA-SAIOAK ETEN ETA LANERAKO DENBORA Datuak ustiatu eta aztertu. Emitzen eta ondorioen atalak idatzi.
Azaroak 17-21	Txosten idatzia eGelara igo (AZKEN ENTREGAGAIA)
Azaroak 24 –28	Ahozko aurkezpenak

8. Ebaluazioa

Moduluko diziplinarteko lanak **%20ko pisua** izango du moduluko irakasgai bakoitzean.

Moduluko hiru irakasgai edo gehiagotan matrikulatuta egonez gero, derrigorrezkoa da moduluko diziplinarteko lana egitea. Hiru irakasgai baino gutxiagotan matrikulatuta dauden ikasleek azken froga bat egin beharko dute irakasgai bakoitzean, lan honekin lortu beharreko konpetentziak lortu dituztela erakusteko.

Eskola-saioetara bertaratzen diren ikasleak

Eskola-saioetara bertaratzen den ikasleztat hartzeko, nahitaezkoa da eskola-saioen %75era etortzea.

Kasu horretan, lan honen kalifikazioa hiru ataletan banatuta egongo da:

- **Idatzizko lana (%10)**

Lanaren zati hau irakasle-tutoreak kalifikatuko du.

Lanaren kalitatea ebaluatzeko tutoreak honako hauek hartuko ditu kontuan: diskurtsoaren **koherentzia** (ideien arteko lotura logiko eta kontzeptuala agerikoa ote den), **zehaztasuna** (ideiek anbiguetatea ahalik eta gehien saihesten ote duten), **sendotasuna** (ideiak argumentuetan oinarritzen ote diren, iritzi soiletan oinarritu beharrean), **kohesioa** (ideiak eta atalak elkarren artean egoki josita ote dauden), **zuzentasun akademikoa** (erabiltzen diren kontzeptu teorikoak ongi ulertuta ote dauden), **hizkuntzaren** erabilera zuzena (akats ortografikorik ez da onartuko) eta komunikatiboki egokia.

Testuaren edukian plagioa ikusiko balitz (adimen artifizialaren erabilpen desegokia barne), deialdi horretako moduluko lana gainditu gabe geldituko litzateke.

Idatzizko lana behar bezala egiteko 4. eranskineko egiaztatze zerrenda erabiltzea gomendatzen da.

- **Ahozko aurkezpena (%5)**

Lanaren zati hau aurkezpenean egon diren ikasleek kalifikatuko dute eta indibiduala izango da (beraz, gerta liteke moduluko diziplinarteko laneko taldekide guztiek kalifikazio berberarekin ez amaitzea).

Kontuan hartuko da ideiak argi eta argudiatuta adieraztea, euskaraz zuzentasunez eta modu egokian hitz egitea eta elkar errespetatzea.

Ahozko aurkezpenak ebaluatzeko 5. eranskineko taula erabiliko da.

- **Prozesua (%5)**

Lanaren prozesua kalifikatzeko ikasleen arteko koebaluazioa egingo da. Zuetako bakoitzak taldekide guztien ebaluazioa bidaliko dio tutoreari eta tutoreak, batezbestekoak kalkulatu ondoren, ikasle bakoitzak lortutako kalifikazioa erantsiko die moduluko lanaren beste bi ataletan lortutakoei.

Taldekideak ebaluatzeko txantiloia 6. eranskinean dago.

Irakasle-tutoreari bidali beharreko dokumentua 7. eranskinean dago.

Eskola-saiotara bertaratzen ez diren dien ikasleak

Etortzerik izango ez dutenek, proiektuari dagozkion konpetentziak lortu dituztela erakusteko, azken froga bat egin beharko dute irakasgai bakoitzean.

9. Eranskinak

1. eranskina. Gogoetarako galderak (taldeak osatzeko)

Orain artean?

- Nolakoak izan dira orain arte ezagutu ditudan taldeak?
 - Nola funtzionatu dute?
 - Zein dira talde lanean aritzeak sortzen dizkidan beldurrak?
 - Eta itxaropenak?
- Zer eskain diezaioket taldeari nik?

Hemendik aurrera...

- Nola funtzionatuko du taldeak?
- Zer konpromiso hartzeko prest nago?
- Zein konpromiso hartuko ditugu taldeko partaideok (adostu eta idatzi zuen talde-lana arautuko duen hitzarmena)

Talde-lan batek elementu hauek hartu beharko ditu kontuan

- Taldeko partaide guztiak entzun behar ditugu.
- Aukera eman taldeko partaide guztiei parte har dezaten.
- Galderak egin.
- Elkarri lagundu.
- Ideiak bata besteari azaldu eta horiek arrazoitu.

Iturria: Mercer, Neil, Hargreaves, Inda, eta García-Carrión, Rocío (2017). *Aprendizaje e Interacciones en el Aula*. Hipatia. [46. orrialdeak]

2. eranskina. Ikasleen talde-fitxak (koordinatzaileari emateko)

LH/HH Gradu bikoitza

TALDEAREN IZENA:

TALDEAREN e-MAIL BAT:

TALDEAREN TELEFONO BAT:

TALDEAREN KOORDINATZAILEAREN IZENA:

	IZENA: ABIZENAK: e-MAILA:
IZENA: ABIZENAK: e-MAILA:	
	IZENA: ABIZENAK: e-MAILA:
IZENA: ABIZENAK: e-MAILA:	
	IZENA: ABIZENAK: e-MAILA:

3. eranskina. Atal teorikoa osatzen laguntzeko jarraibideak

[Bakarka]

1. Gaiari buruzko **literatura irakurri** (irakasleek eskura ipinitakoa eta zeuek aurkitutakoa).
2. Ikerketa-galderek ukitzen dituzten gaiei buruzko **informazioa aurkitu** irakurritako testuetan: ikuspuntu pedagogikoak, ikastetxeen funtzionamendua, irakaslearen funtzioa, irakasleen erronkak, erronka horiei aurre egiteko estrategiak eta baliabideak...
3. Bakoitzak **fitxa** bat bete irakurritakoan oinarrituta. Hona hemen fitxa:

Testu bakoitzean gai bati edo gehiagori buruzko informazioa aurkituko duzue. Informazio hori gaika antolatu behar duzue (gai bati buruz testu desberdinetan irakurritakoak elkarren ondoan bilduta).

Gai bakoitzari buruz irakurritakoen artean garrantzitsuenak iruditutako ideiak bildu (gai bakoitzari buruz gehienez 4 ideia).

GAI BAT:

1. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
2. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
3. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
4. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]

BESTE GAI BAT:

1. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
2. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
3. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
4. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]

BESTE GAI BAT:

1. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
2. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
3. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
4. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]

[Taldean]

4. **Ideiak bateratu:** etxean bakarka betetako fitxak alderatu eta fitxa bakar bateratua osatu taldean:

Identifikatutako gaiei buruzkoak irakurri eta garrantzitsuenak iruditutako ideiak bildu (gai bakoitzari buruz 3-6 ideia).

GAI BAT:

1. [Ideia kopia eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]

2. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
3. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
4. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
5. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
6. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]

BESTE GAI BAT:

1. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
2. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
3. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
4. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
5. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
6. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]

BESTE GAI BAT:

1. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
2. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
3. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
4. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
5. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]
6. [Ideia kopiatu eta iturria zehaztu (abizena, urtea, orrialdea)]

5. Atal teorikoa osatzeko **eskema egin** (atal hori osatuko duen diskurtsoaren haria zein izango den erabaki).

6. **Testua idatzi.**

4. eranskina. Idatzizko lana ebaluatzeko egiaztatze-zerrenda

	BAI	EZ
Txostenaren egitura egokia da.		
Landutako edukiak egokiak dira.		
Kontzeptu teorikoak behar bezala interpretatu dira.		
Ideiak modu argian adierazten dira, erraz ulertzeko moduan.		
Ideiak argumentuetan oinarritzen dira, ez iritzietan.		
Ideien arteko loturak zentzuzkoak dira, argudioaren hariari jarraitzen diote. [KOHERENTZIA]		
Lanera ekarritako ideiak eta lanaren atalak elkarren artean josita daude (hari narratibo bati jarraitzen diote). [KOHESIOA]		
Txostenak orri guztiak zenbakituta dauzka eta aurkibidearekin bat datoz.		
Taulak eta grafikoak zenbakituta daude eta iturriak behar bezala aipatzen dira.		
Formatu arauak zorrozki errespetatu dira (luzera, letra mota eta tamaina, lerroarte...).		
Testua zuzen idatzia dago (akats sintaktiko-gramatiko-ortografikorik gabe)		
Etika arauak errespetatu dira: ez da plagiatua, ez kopiatua.		
Iturriak APA arauen arabera aipatu dira.		

5. eranskina. Ahozko aurkezpenak ebaluatzeko irizpideak

Irizpideak	0 – 5 (1: eskas; 2: hobetu behar; 3: nahikoa; 4: oso ondo; 5: bikain)
Ideiak argi azaltzea	
Ideiak ondo argudiatuta aurkeztea	
Euskaraz zuzen eta egoki hitz egitea	
Elkar errespetatzea	
Batezbestekoa	

6 eranskina. Taldearen dinamika ebaluatzeko txantiloia

TALDE-LANA vs LANTALDEA · ELKARLANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

	Taldekidearen izena:	
Irizpideak	Adierazleak	0 – 5 (1: eskas; 2: hobeto behar; 3: nahikoa; 4: oso ondo; 5: bikain)
EKARPENAK eta PARTAIDETZA	- Helburuak argitzen eta adosten saiatzen da. - Taldearekin partekatzen ditu ideiak eta iritziak. - Besteek eskatzen dizkie ideiak eta iritziak, eta saiatzen da horiek zabaltzen eta osatzen, lanean integratzen. Ezagutza sakontzeko, besteek ideien argudioak eskatzen dizkie. - Ulertzen ez duenean galdetu egiten die taldekideei; besteek ulertzen ez duten kasuan erantzuna berak badaki, taldekideei eskaintzen die.	
JARRERAK	- Jokaera positiboa dauka, aktiboki entzuten du eta parte hartzen du. - Besteen partaidetza bultzatzen du. - Lankideei laguntza ematen die eta bere merituen aitortzen ditu. - Ideiak kritikatzeko ditu, ez pertsonak. - Talde kohesioa mantentzen saiatzen da eta taldekideen gogoaldarteak kontuan hartzen saiatzen da. - Zailtasunen aurrean saiatu egiten da, taldekideak animatu egiten ditu eta ikaskuntzan onartu egiten ditu arriskuak.	
ERANTZUKIZUNA	- Adostutako arauak betetzen ditu. - Bere lanak adostutako epeetan entregatzen ditu. - Bere lan erritmoak ez du oztopatzen taldeko planifikazioa. - Lana eman baino lehen orraztu egiten du. - Hartutako konpromisoak betetzen ditu.	
BERTARATZEA eta PUNTUALITASUNA	- Bilera guztietara joaten da. - Bileretara garaiz agertzen da eta bukaera arte ez du alde egiten. - Kaleren bat egiten badu edo berandu ailegatzen bada, ongi justifikatzen du.	
GATAZKAK KONPONTZEA	- Desadostasun edo gatazka egoeretan besteen iritziak eta iradokizunak entzuten ditu eta saiatzen da onartzen. - Modu asertiboan adierazten ditu bere desadostasunak. - Saiatzen da beste aukerak bilatzen eta irtenbide adostuak onartzen. - Tentsioak bideratzen ahalegintzen da. - Entzute eraginkorra bultzatzen du eta komunikazioa errazten du.	
	Batezbestekoa	

Iturri hauetatik egokitua:

Johnson, David W., eta Johnson, Roger T. (2014). *La evaluación en el aprendizaje cooperativo*. SM argitaletxea.

Chica Merino, Encarnación (2011). Una propuesta de evaluación para el trabajo en grupo mediante rúbrica. *Escuela Abierta*, 14, 67-81.

7 eranskina. Taldekideen koebaluazioa (tutoreari bidaltzeko)

Taldea		
Ebaluatzailea		
		Prozesuaren kalifikazioa (0,5etik)
Ebaluatutako taldekideak	[a ikaslearen izen-abizenak]	
	[b ikaslearen izen-abizenak]	
	[c ikaslearen izen-abizenak]	
	[d ikaslearen izen-abizenak]	
Oharrak (Azalpena, gogoeta...)	(Behean idatzi)	